

## **Bizimodu jasangarrietarantz HERRI AUZITEGIA**

### **Energia modu jasangarrian eta bidezkoan eskuratzeko eskubidea eta energia-burujabetza izateko eskubidea.**

Gizarte jasangarriagoak eta bidezkoagoak eraiki nahi baditugu, gure ustez ezinbestekoa da pertsona guztientzako baliabideen eskuragarritasun unibertsala bermatzea, duintasunez bizitzeko oinarrizko beharrak asetzea posible izan dadin. Zentzu horretan, uste dugu legeen bidez babestu beharko litzatekeela bizitzeko beharrezko energia eskuratzeko oinarrizko eskubidea, baita pertsonen zein lurraldeen energia burujabetza ere.

Jarraian eskubide honen urraketei lotutako kasuak aztertuko ditugu.

#### **ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA: WEST SAHARA RESOURCES WATCH (WSRW)**

#### **TOKIA: MENDEBALDEKO SAHARA (lurralde okupatuak)**

#### **40 urte baino gehiagoko okupazioa eta energia-espoliatioa**

1975ean Mendebaldeko Saharako lurraldea okupatu zuen Marokok, kolonoz bete zuen eta armada eraman zuen. Okupazioa, gainera, nabarmenagoa egin zen 1.200 km-ko harresia eraiki zutenean Aljeriako mugan; harresia militarrek, hesiek eta pertsonen eta tankeen kontrako minek babesten zuten.

Ordutik, sahararrek eskubide zibil eta politikoen etengabeko urraketa pairatu dute, eta ez dute defendatzeko inongo aukerarik. Aldi berean, lurralde okupatuak baliabide natural eta energetikoen ustiapena pairatzen dute.

Urte guzti hauetan Marokok baimenak eman ditu lurralde okupatuetan petrolio eta gas prospekzioak egiteko; azken hamarkadan izandako politika energetikoa haize- eta eguzki-energiako instalazioak eraikitzen bideratu da, horietako batzuk lurralde okupatuetan.

#### **Norberaren lurraldeko baliabideei buruz erabakitze eta antolatze eskubidea**

Sahararrek 40 urte baino gehiago daramatzate baztertuta bizitzen, eta herri gisa antolatze eta babesteko eskubidea erabat urratzen diete. Horrela, urteak dira sahararrek Marokoko armadaren errepresioa pairatzen dutela, eta testigantza askotan jaso bezala, haien lan-baldintzak nabarmen okertu dira kolono marokoarren baldintzekin alderatuta.

Kalkuluen arabera, Mendebaldeko Saharako 5 biztanletik soilik 1 da sahararra, eta sahararren 2/3ek beren burua behartuta ikusi dute errefuxiatu guneetan bizitzera, non energiaren eta bestelako baliabide naturalen eskuragarritasuna oso mugatua den. Bitartean, sahararren baliabideak ustiatzen dituzte Marokok eta mundu osoko enpresek (Kanada, Errusia, Lituania, Zeelanda Berria, Australia, Venezuela, India, Alemania, Frantzia, Italia, Irlanda, Espainia...).

Gainera, lurralde okupatuetan proiektuak eraikitze lizitazioak emateak indartu egiten du lurraldearen okupazio egoera, hartutako erabakien inguruan sahararrei ez baitaie inolako kontsulta edo aitortzarik egiten. Guztiaz ere, 40 urte baino gehiagoren ostean, nazioartean autodeterminazio eskubidea aitortuta dagoen arren, ezin izan dute eskubide hori erabili.

Horregatik guztiarengatik, kasu honetan argi eta garbi urratzen da bizitza jasangarriak izateko eskubidea, eta beraz, epaitu eta aitortu egingo da otsailean Bilbon ospatuko den auzitegian.

## Bizimodu jasangarrietarantz HERRI AUZITEGIA

### Energia modu jasangarrian eta bidezkoan eskuratzeko eskubidea eta energia-burujabetza izateko eskubidea.

**ERAKUNDE DOKUMENTATZAILEA: Hipotekak kaltetutakoen plataforma (PAH)**

**TOKIA: IRUÑEA**

#### **Oinarrizko beharrak eta energia-sektorearen etekin pribatuak, aurrez aurre.**

Espainiako Estatuaren egungo energia-eredua oligopolioa osatzen duten zenbait enpresak elikatzen dute. Oligopolioko enpresek kontrolatzen dute energia-sektoreko merkatua, eta pribatizatutako zerbitzu horiek kudeatzen dituzte etekinak lortzeko, bizitzeko beharrak asetzerantz bideratu ordez. Horren ondorioz, baliabiderik gabeko familia askori urratzen diete bizitzeko beharrezko energia edukitzeko oinarrizko eskubidea.

Bizimodu jasangarrietarako Auzitegian Iruñeako familia baten kasua salatu dugu. Bi pertsona helduk eta haur batek osatzen dute familia, eta beste familia askok bezala, azken urteotan ez dute baliabiderik eduki oinarrizko energia horniketa ordaindu ahal izateko.

Bi pertsona helduek denbora daramate langabezian, eta ondorioz zorra pilatu zuten eta etxegabetu egin zituzten. Egoera hori eragin zuten, baita ere, neurritz kanpoko legeek; izan ere, etxegabetutako pertsonen defentsa-eskubidea urratzen dute legeok, eta bankuak babestu.

Ondorengo urteetan familiak ez du zorra kitatu, eta ezin izan ditu oinarrizko horniketaren gastuak ordaindu. Argindarraren fakturak urteetan ezin ordaindu ostean, argindarra moztuko zietelako ohartarazpenak jaso dituzte, eta arrisku horren aurrean familia honentzako konponbide bakarra zorra epetan ordaintzea izan da. Ondorioz, horri aurre egiteko, bestelako oinarrizko beharrak asetzeari uko egin behar izan diote.

#### **Energiaren eskuragarritasun unibertsala, duintasunez bizitzeko.**

Gero eta familia gehiagok pairatzen dute —posible bada— gero eta baldintza gogorragoak, eta egoera okerrera doa erakundearen babes faltagatik, laguntzak jaso arte itxaron beharreko denbora-tarte luzeagatik eta energia-konpainien sentsibilizazio ezagatik.

Estatuko herritarren %15ek baino gehiagok zailtasunak dituzte fakturak ordaintzeko. Horrela, etxebizitza duina izateko oinarrizko eskubidea urratzen diete pertsona horiei; hau da, oinarrizko biziegokitasun baldintzak betetzen dituen etxebizitza, temperatura egokiduna, eta pertsona orok behar dituen oinarrizko zaintzak gauzatzeko eta elikatzeke energia eskaintzen duena.

*“Tipi-Tapa Bagoaz. Hacia vidas sostenibles”* kanpainaren manifestuan esan bezala, energia oinarrizko eskubide gisa aitortu behar da, eta horregatik pertsona oroentzako bizitza duina bermatuko duen energia-kopurua eskuratzeko legeak aldarrikatzen ditugu.